(na)stat
Instituto de Estadística de Navarra
Nafarroako Estatistika Erakundea

Gobierno de Navarra | Nafarroako Gobernua

Nota **estadística**
Ohar **estatistikoa**

**Nafarroako Hiru hileroko Kontabilitatea (2023ko laugarren hiruhilekoa)**
(2024ko martxoan eguneratutako datuak)

# Nafarroako BPGd-a % 1,5 hazi da 2023ko laugarren hiruhilekoan, aurreko urteko aldi berarekin alderatuta

# 2023. urte osoan, BPGd-a % 1,9 igo da

*2024ko martxoaren 26a*

## Zerbitzuek eta azken kontsumoko gastuak izan dute igoerarik handiena

Barne-produktu gordina % 1,5 hazi da Nafarroan 2023ko laugarren hiruhilekoan, 2022ko hiruhileko berarekin alderatuta; aurreko hiruhilekoan % 1,7 hazi zen. Zenbatespen horrek hamarren batean hobetu du Nafarroako Estatistika Erakundeak (Nastat) egindako Nafarroako Hiru hileroko Kontabilitatearen Aurrerapenean lortutakoa. Aldi horretan bertan, Espainiak % 2,0ko igoera izan du, eta EB-27k % 0,2koa.

### 1. TAULA (ikus taula osoa eranskinean)

Barne Produktu Gordina. Kateatutako bolumen-indizeak, erreferentziatzat 2010 hartuta

| | 2022 | 2023 | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 4. T | 1. T | 2. T | 3. T | 4. T |
| BPGd mp NAFARROAN, GUZTIRA | 119,11 | 119,52 | 119,90 | 120,14 | 120,85 |
| Urte arteko hazkunde-tasak (%) | 3,0 | 2,4 | 2,0 | 1,7 | 1,5 |
| Hiruhilekoen arteko hazkunde-tasak (%) | 0,8 | 0,3 | 0,3 | 0,2 | 0,6 |
| BPGd mp ESPAINIAN, GUZTIRA[1] | 112,03 | 112,60 | 113,16 | 113,63 | 114,29 |
| Urte arteko hazkunde-tasak (%) | 3,8 | 4,1 | 2,0 | 1,9 | 2,0 |
| Hiruhilekoen arteko hazkunde-tasak (%) | 0,5 | 0,5 | 0,5 | 0,4 | 0,6 |

*[1] Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendu da datu hauetan.*

**CONTACTO | HARREMANETARAKO**
estadistica@navarra.es
848 42 34 00

## 1. GRAFIKOA

BPGd-aren urte arteko hazkundea, bolumenean. Nafarroa, Espainia, EB




## ESKAINTZA ETA ESKARIA

**Eskaintzaren** ikuspuntutik, laugarren hiruhilekoan merkatu-zerbitzuek eta merkatuz kanpokoek aldiko igoerarik handiena izan dute (%2,3koa), eta informazio- eta komunikazio-zerbitzuak eta administrazio-jarduerak izan dira dinamismorik handiena agertu duten adarrak. Industria-jarduerak % 0,7ko jaitsiera izan du aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, eta nekazaritza-adarren igoera moteldu egin da aurreko aldiarekin alderatuta. Bestalde, eraikuntza-adarren hazkunde-erritmoa % 1,3ra igo da.

### 2. TAULA (ikus taula osoa eranskinean)

Eskaintza. Barne Produktu Gordina. Kateatutako bolumen-indizeak, erreferentziatzat 2010 hartuta. Urte arteko hazkunde-tasak

| ESKAINTZA | 2023 | |
|---|---|---|
| | 3. T | 4. T |
| Nekazaritzaren BEGd op | 3,2 | 2,8 |
| Industriaren BEGd op | 0,5 | -0,7 |
| Eraikuntzaren BEGd op | 0,6 | 1,3 |
| Zerbitzuen BEGd op | 2,3 | 2,3 |
| Merkatu-zerbitzuen BEGd op | 2,5 | 2,3 |
| Merkatuz kanpoko zerbitzuen BEGd op | 1,6 | 2,3 |
| Produktuen gaineko zergak | 1,7 | 1,9 |
| **BEGd mp NAFARROAN, GUZTIRA** | **1,7** | **1,5** |

### 2. GRAFIKOA

Eskaintza bidezko urte arteko hazkundea. Nafarroa. 2023ko 4. hiruhilekoa.



**Eskariari** dagokionez, etxeen eta etxeen zerbitzura dauden irabazi-asmorik gabeko erakundeen (EZIAGE) kontsumoaren edo kontsumo pribatuaren igoera nabarmendu da (% 3,0koa), baita administrazio publikoen kontsumoarena (edo kontsumo publikoarena) ere (% 2,6ko igoera urtetik urtera). Bestalde, inbertsioaren edo kapital-eraketa gordinaren aurrerapen-erritmoa aurreko hiruhilekokoa baino txikiagoa izan da.

**3. TAULA (ikus taula osoa eranskinean)**

Eskaria. Barne Produktu Gordina. Kateatutako bolumen-indizeak, erreferentziatzat 2010 hartuta. Urte arteko hazkunde-tasak

| | 2023 | |
|---|---|---|
| **ESKARIA** | **3. T** | **4. T** |
| Azken kontsumoko gastua | 2,9 | 2,9 |
| Etxeen eta EZIAGEen azken kontsumoko gastua | 3,2 | 3,0 |
| Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua | 2,1 | 2,6 |
| Kapital finkoaren eraketa gordina | 1,2 | 1,1 |
| - Ekipo-ondasunak eta beste produktu batzuk | 1,9 | 1,6 |
| - Eraikuntza | 0,4 | 0,5 |
| Izakinen aldakuntza* | 0,0 | 0,0 |
| BARNE-ESKARIA* | 2,4 | 2,4 |
| Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak | 0,3 | -0,9 |
| Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak | 1,3 | 0,2 |
| KANPO-ESKARIA* | -0,7 | -1,0 |
| BPGd mp NAFARROAN, GUZTIRA | 1,7 | 1,5 |

(*)BPGd-ari egindako ekarpena

**3. GRAFIKOA**

Eskariaren osagaien urte arteko hazkundea. Nafarroa. 2023ko 4. hiruhilekoa.




Esportazioak % 0,9 jaitsi dira aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta, eta inportazioak, berriz, % 0,2 igo. Kanpo-eskariak, hots, esportazioen eta inportazioen arteko aldeak areagotu egin du BPGd-ari egindako ekarpen negatiboa, eta portzentaje-puntu batera iritsi da.

## ERRENTAK

Soldatakoen ordainsariak autonomoen ordainsariaz eta enpresa-mozkinez osatutako ustiapen-soberakin gordinean zenbatetsitakoa (% 3,6) baino igoera handiagoa izan du (% 5,8koa).

## 4. GRAFIKOA

Errentak. Barne Produktu Gordinaren osagaiak. Urte arteko hazkunde-tasak.




## ENPLEGUA

2023ko laugarren hiruhilekoan, enpleguak % 1,5eko igoera izan du, hau da, soldatako lanpostuetan zenbatetsitako tasa baino hamarren bat handiagoa. Merkatu-zerbitzuek izan dute igoerarik nabarmenena, eta areagotu egin dute aurrerapen-erritmoa, aurreko aldiarekin alderatuta.

## 5. GRAFIKOA

Lanpostuak. Urte arteko aldakuntza.




## TABLA 4

Lanpostuak. Urte arteko aldakuntza

| | LANDUNAK | SOLDATAKOAK |
|---|---|---|
| Nekazaritza, abeltzaintza eta basogintza | 2,8 | 2,1 |
| Industria-adarrak | -0,7 | -1,1 |
| Eraikuntza | -0,3 | 0,1 |
| Zerbitzuak | 2,3 | 2,4 |
| Merkatu-zerbitzuak | 2,5 | 2,8 |
| Merkatuz kanpoko zerbitzuak | 1,6 | 1,6 |
| **GUZTIRA** | **1,5** | **1,4** |

## URTEKO ZENBATESPENAK

Urte osoan, Nafarroako Barne Produktu Gordinak % 1,9ko igoera izan du, eta jarduera ekonomikoa moteldu egin da 2022. urteko % 4,3ko igoeraren ondoren.

Estatistikako Institutu Nazionalaren zenbatespenaren arabera, aldi horretan bertan Espainiako ekonomiak % 2,5eko igoera izan du.

### 6. GRAFIKOA

Barne Produktu Gordina. Urte arteko aldakuntza.




Nafarroako ekonomiaren dinamismo txikiago horren arrazoia, eskaintzaren ikuspegitik, industriaren eta merkatu-zerbitzuen adarretan agertutako moderazioa da, neurri batean merkatuz kanpoko zerbitzuetan ikusitako susperraldiarekin konpentsatua.

Eskariaren ikuspegitik, barne-eskaria moteldu egin da, 2,4 portzentaje-puntuko ekarpenarekin, batez ere kapital-eraketa gordinean zenbatetsitako igoera txikiagoagatik. Azken kontsumoko gastuak aurrerapen-erritmoa moteldu badu ere, aldakuntza-tasa handiekin jarraitu du. Bestalde, kanpo-eskariaren ekarpen negatiboa sei portzentaje-hamarrenera iritsi da.

# ERANSKINA

## 1. TAULA

Barne Produktu Gordina. Kateatutako bolumen-indizeak, erreferentziatzat 2010 hartuta

| | 2022 | | | 2023 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | 2. T | 3. T | 4. T | 1. T | 2. T | 3. T | 4. T |
| BPGd mp NAFARROAN, GUZTIRA | 117,53 | 118,12 | 119,11 | 119,52 | 119,90 | 120,14 | 120,85 |
| Urte arteko hazkunde-tasak (%) | 4,5 | 3,2 | 3,0 | 2,4 | 2,0 | 1,7 | 1,5 |
| Hiruhilekoen arteko hazkunde-tasak (%) | 0,7 | 0,5 | 0,8 | 0,3 | 0,3 | 0,2 | 0,6 |
| BPGd mp ESPAINIAN, GUZTIRA[1] | 110,90 | 111,48 | 112,03 | 112,60 | 113,16 | 113,63 | 114,29 |
| Urte arteko hazkunde-tasak (%) | 7,2 | 5,4 | 3,8 | 4,1 | 2,0 | 1,9 | 2,0 |
| Hiruhilekoen arteko hazkunde-tasak (%) | 2,5 | 0,5 | 0,5 | 0,5 | 0,5 | 0,4 | 0,6 |

*[1] Urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendu da datu hauetan.*

## 2. TAULA

Eskaintza. Barne Produktu Gordina. Kateatutako bolumen-indizeak, erreferentziatzat 2010 hartuta. Urte arteko hazkunde-tasak.

| **BPGd mp** | 2022 | 2023 | 2022 | | | 2023 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2. T | 3. T | 4. T | 1. T | 2. T | 3. T | 4. T |
| Nekazaritzaren BEGd op | 2,3 | 3,4 | 1,6 | 2,2 | 2,5 | 4,2 | 3,5 | 3,2 | 2,8 |
| Industriaren BEGd op | 3,5 | 0,4 | 2,1 | 2,0 | 2,3 | 0,6 | 1,3 | 0,5 | -0,7 |
| Eraikuntzaren BEGd op | 4,3 | 0,9 | 5,4 | 3,9 | 1,4 | 0,8 | 0,8 | 0,6 | 1,3 |
| Zerbitzuen BEGd op | 5,2 | 2,6 | 6,2 | 4,1 | 4,1 | 3,4 | 2,4 | 2,3 | 2,3 |
| Merkatu-zerbitzuen BEGd op | 7,3 | 3,1 | 8,2 | 6,5 | 5,4 | 4,6 | 2,9 | 2,5 | 2,3 |
| Merkatuz kanpoko zerbitzuen BEGd op | -1,4 | 1,0 | -0,7 | -3,6 | -1,6 | -0,7 | 0,8 | 1,6 | 2,3 |
| Produktuen gaineko zergak | 1,3 | 1,9 | 1,0 | 0,9 | 1,4 | 2,0 | 1,8 | 1,7 | 1,9 |
| **BPGd mp NAFARROAN, GUZTIRA** | **4,3** | **1,9** | **4,5** | **3,2** | **3,0** | **2,4** | **2,0** | **1,7** | **1,5** |

**CONTACTO | HARREMANETARAKO**
estadistica@navarra.es
848 42 34 00

## 3. TAULA

Eskaria. Barne Produktu Gordina. Kateatutako bolumen-indizeak, erreferentziatzat 2010 hartuta. Urte arteko hazkunde-tasak.

| BPGd mp | 2022 | 2023 | 2022 | | | 2023 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | T 2 | T 3 | T 4 | T 1 | T 2 | T 3 | T 4 |
| Azken kontsumoko gastua | 3,0 | 2,9 | 3,4 | 2,4 | 2,7 | 2,9 | 2,9 | 2,9 | 2,9 |
| Etxeen eta EZIAGEen azken kontsumoko gastua | 4,0 | 3,2 | 4,2 | 3,7 | 3,7 | 3,5 | 3,2 | 3,2 | 3,0 |
| Administrazio publikoen azken kontsumoko gastua | -0,1 | 1,8 | 0,5 | -1,7 | -0,3 | 0,9 | 1,7 | 2,1 | 2,6 |
| Kapital finkoaren eraketa gordina | 4,6 | 1,4 | 5,1 | 4,2 | 2,3 | 1,8 | 1,4 | 1,2 | 1,1 |
| - Ekipo-ondasunak eta beste produktu batzuk | 4,9 | 2,1 | 5,0 | 4,5 | 3,2 | 2,8 | 2,0 | 1,9 | 1,6 |
| - Eraikuntza | 4,1 | 0,5 | 5,3 | 3,8 | 1,3 | 0,6 | 0,6 | 0,4 | 0,5 |
| Izakinen aldakuntza* | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 | 0,0 |
| BARNE-ESKARIA* | 3,2 | 2,4 | 3,5 | 2,6 | 2,5 | 2,5 | 2,4 | 2,4 | 2,4 |
| Ondasunen eta zerbitzuen esportazioak | 4,8 | 0,7 | 4,5 | 4,3 | 4,3 | 1,6 | 1,7 | 0,3 | -0,9 |
| Ondasunen eta zerbitzuen inportazioak | 3,6 | 1,4 | 3,5 | 4,0 | 3,9 | 1,9 | 2,4 | 1,3 | 0,2 |
| KANPO-ESKARIA* | 1,1 | -0,6 | 1,1 | 0,5 | 0,5 | -0,1 | -0,4 | -0,7 | -1,0 |
| BPGd mp NAFARROAN, GUZTIRA | **4,3** | **1,9** | **6,5** | **3,2** | **3,0** | **2,4** | **2,0** | **1,7** | **1,5** |

(*)BPGd-ari egindako ekarpena

## 4. TAULA

Errentak. Barne Produktu Gordina. Prezio korronteak. Urte arteko hazkunde-tasak.

| | 2022 | 2023 | 2022 | | | 2023 | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2. T | 3. T | 4. T | 1. T | 2. T | 3. T | 4. T |
| Soldatakoen ordainsaria | 6,0 | 5,8 | 5,9 | 5,0 | 6,3 | 5,4 | 6,0 | 6,0 | 5,8 |
| Ustiapen-soberakin gordina | 13,7 | 6,1 | 14,5 | 11,5 | 11,6 | 8,9 | 6,9 | 5,2 | 3,6 |
| Produkzioaren eta inportazioaren gaineko zerga garbiak | 6,8 | 6,5 | 6,6 | 10,2 | 3,4 | 7,4 | 6,8 | 5,9 | 6,1 |
| BPGd mp NAFARROAN, GUZTIRA | 9,6 | 6,0 | 9,8 | 8,5 | 8,5 | 7,2 | 6,5 | 5,6 | 4,8 |
| Soldatakoen ordainsaria Nafarroan | 2,6 | 4,5 | 2,3 | 2,7 | 4,1 | 4,4 | 4,7 | 4,6 | 4,3 |
| Soldatakoen ordainsaria Espainian | 2,9 | 5,2 | 2,5 | 3,5 | 4,3 | 6,1 | 5,4 | 4,9 | 4,7 |
| Nafarroako Lan Kostu Unitarioa | 1,7 | 4,0 | 1,9 | 1,9 | 3,1 | 3,3 | 4,0 | 4,3 | 4,3 |
| Espainiako Lan Kostu Unitarioa | 0,9 | 6,0 | 0,3 | 1,0 | 2,4 | 4,5 | 6,6 | 6,3 | 6,6 |

## OHAR METODOLOGIKOA

Nafarroako hiru hileroko kontabilitatea sintesi-estatistika bat da, egoeraren arabera egiten dena, eta haren helburu nagusia da Nafarroako ekonomiaren azken bilakaeraren neurketa sistematikoa eta koherentea egitea. Gaur aurkeztu dugun koadro makroekonomikoa koherentea da metodologikoki 2010eko kontabilitate-seriearekin (CENAV-2010), zeina 2020ko abenduan berrikusi baitzen.

Eragiketa horrek, hiruhilekoa amaitu eta hilabetera (h + 30 egun, erreferentziazko hiruhilekoa h izanik), ekonomian sortutako barne-produktu gordinaren aurrerapen-zenbatespen bat eskaintzen du, baita haren osagaietako bakoitzarena ere, eskaintzaren, eskariaren eta errenten ikuspegietatik. Era berean, ekonomiaren enpleguaren bilakaeraren neurketa bat eskaintzen du, pertsona okupatuei, lanpostuei, lanaldi osoko lanpostu baliokideei eta lan egindako orduei dagokienez.

Hiruhileko bakoitzeko emaitzak h+90 egun ingurura berrikusten dira, eta ondorengo informazio guztia gehitzen da.

Oraingo honetan, Nafarroako Hiru hileroko Kontabilitatearen 2023ko laugarren hiruhilekoko aurrerapena argitaratu zenetik informazio berria eskuratzeari esker, neurri handian arindu da ohiko zenbatespen-ereduak erabiltzeko zailtasuna.

Dena den, oraindik ere zailtasunak daude aldi baterako serieen tratamendu-programak aplikatu behar direnean. Programa horiek aukera ematen dute ziklo-joeren seinalea iragazteko, eta bertan Nafarroako Hiru hileroko Kontabilitatearen datuak aurkezten dira.

- **Eragiketa mota:** jarraitua, hiru hilean behingoa.
- **Eremu geografikoa:**
  Nafarroako Foru Komunitatea
- **Emaitzen erreferentzia-aldia:** hiruhilekoa.
- **Bilketa-metodoa:** sintesi-estatistika.

## INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Nafarroako Hiru hileroko Kontabilitatea. 2023ko laugarren hiruhilekoa.

**CONTACTO | HARREMANETARAKO**
estadistica@navarra.es
848 42 34 00